



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko otsailaren 21a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko otsailaren 25eko 7/2013 Foru Legea bete dezan. Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fauna babestua pozoitzeagatik kalteak gainditzeko beharrezkoak diren neurriak zehaztu eta gara ditzan, ukitutako barrutietako jarduna eten dezan eta pozoiauren aurkako kudeaketa-plan bat taxutu dezan. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen du fundazioen kenteak eraginik ez izatea auditoriak egiteko premian eta betebeharrean, eta Nafarroako Gobernuak Kontuen Ganberaren esku jartzea dagoen informazio guztia. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Popular del Parlamento de Navarra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkeztu dute (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan informazio automatikoko sistema bat, itzarote-zerrendan edo hitzorduaren zain dauden herritarrek beren egoera zerrenda horretan kontsultatzea ahalbidetuko duena, eta halaber, premiatzen da Nafarroako Parlamentuari hilabetero igor diezaioten aipatu zerrenden bilakaerari buruzko dokumentazio xehakatu. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan Belaten barna Iruñetik Frantziara doan N-121-A errepideko tarte osoa bikoizteko aukera. Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztu du (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen baitu Espainiako Gobernuaren immigrazio-politika. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak FMko irrati-lizentziak esleitzeko lehiaketaren gaineko epaia betetzeko egin dituen urratsei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (12. or.).
- Galdera, oinarrizko osasun-laguntzan gaixoentzako zaintza-eskaintzak duen jarraitutasunari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (13. or.).
- Galdera, 2013an zehar “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” lortu duten proiektuei merkataritza-enpresek, finantza-entitateek eta pertsona partikularrek egindako dohaintzei buruzkoa, Xabier Lasa Gorraiz jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko Elizbarrutiko artxiboa dela-eta inolako dirulaguntzarik edo hitzarmenik egon ote den edo dagoen Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Artzapezpikutzaren artean, Juan Carlos Longás García jaunak egina (14. or.).
- Galdera, euskal telebista publikoa ikusi ahal izatea dela-eta Nafarroak dituen interesei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako osasun-garraioari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (16. or.).
- Galdera, “Equilicua” programari buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak daukan dokumentaziori buruzkoa, zeinari jarraikiz Estatuko administrazioak eragozten baitu foru parlamentarien esku jarri ahal izatea Guardia Zibilak D ereduari buruz egindako txostena, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2014ko martxoaren 24ko eguerdiko hamabiak arte**

luzatzea. Aipatu foru lege proposamena 2013ko azaroaren 8ko 128. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2014ko martxoaren 17ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu

foru lege proposamena 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Iruñerriko Bidaiari-garraio Erregularrari buruzko ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2014ko martxoaren 17ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru

lege proposamena 2013ko abenduaren 20ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko otsailaren 25eko 7/2013 Foru Legea bete dezan.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko otsailaren 25eko 7/2013 Foru Legea bete dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko otsailaren 25eko 7/2013 Foru Legea bete dezan, halako moduz non neurriak hartuko baitira egoera onean dauden elikagai-soberakinak Elikagaien Bankuaren eta gisako entitateen esku jartzeko eta Nafarroan pertsona guztien elikadura egoki eta nahikoa bermatzeko.

Zioen azalpena

Iragan 2013ko martxoaren 5ean sartu zen indarrean Elikagaien Hondakinen Erabilerari buruzko otsailaren 25eko 7/2013 Foru Legea,

zeina Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak proposatu baitzuen bere garaian. Legean honako hauek jaso ziren:

– Jarduerak sortutako hondakinen kudeaketa egokia, hondakin horiek gutxitzera eta, bereziki, elikagaien hondakinak aprobetxatzera bideratuta neurriekin.

– Jarduerak sortutako hondakinak kudeatzeko plana, haiek gutxitzera eta zuzen tratatzera bideratua. Elikagai-hondakinik sortuz gero, haiek aprobetxatzeko plana, Nafarroako Elikagaien Bankuarekiko nahiz antzeko bestelako erakundeekiko akordioaren bitartez.”

– Hondakinen arloan aplikatzekoa den araudiaren arabera, txikizkako saltzaileek behar diren neurriak hartu beharko dituzte beren jarduerak sortutako hondakinak ahal den guztian gutxitzeko eta haiei tratamendu egokia emateko. Bereziki, elikagaien hondakinen kasuan, gomendatzen da aprobetxagarriak direnak bereiztea eta Nafarroako Elikagaien Bankuari eta antzeko beste erakunde batzuei ematea.”

– Nafarroako Gobernuak, 2013ko abenduaren 12a baino lehen, elikagaien soberakinak banatzeari buruzko jokabide egokien kode bat landuko du, ukitutako eragile guztien parte-hartzearekin, honako hauek helburu:

a) Kontsumorako gai diren baina merkaturatzeko gai ez diren elikagaien soberakinak gutxitzeko prozesuen efizientzia hobetzea.

b) Neurriak ezartzea produktu horien soberakinak gizarte erakundeei eskuratzeko eta premia handienak dituzten pertsonen artean banatzeko.

c) Elikadura-kate osoa kontzientziazatzen laguntzea, ekoizleengandik hasi eta kontsumitzaileenganaino, kontsumo arduratsua egiteko

beharrari buruz eta elikagaien eralgiketa gutxitzeari buruz.

2. Nafarroako Gobernuak, oinarrizko gizarte zerbitzuen bitartez, koordinatuko du, Nafarroako Elikagaien Bankuarekin lan egiten duten laguntzako entitateen sarearekin eta antzeko beste erakunde batzuekin, behar diren neurriak hartzea baliabiderik ez duten pertsona eta familia guztiei beren garapen normalerako behar adinako oinarritzko elikadura nahikoa bermatzeko.

Orain dela gutxi, Gizarte Politiketako kontseilariak Parlamentuko agerraldi batean informatu zuen merkataritza-sektoreko ordezkariari legeari buruzko informazioa emateko harremanez landa ez zela ez jokabide egokien kodea garatu, ez neurririk ere

hartu, oinarrizko gizarte zerbitzuekin koordinatuta pertsona orori bere garapen normalerako oinarrizko elikadura nahikoa bermatzekorik.

Horregatik guztiagatik:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Elikagaien Hondakinen Erabilerrari buruzko otsailaren 25eko 7/2013 Foru Legea bete dezan, halako moduz non neurriak hartuko baitira egoera onean dauden elikagai-soberakinak Elikagaien Bankuaren eta gisako entitateen esku jartzeko eta Nafarroan pertsona guztien elikadura egokia eta nahikoa izatea bermatzeko.

Iruñean, 2014ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da fauna babes-tua pozoitzeagatiko kalteak gainditzeko beharrezkoak diren neurriak zehaztu eta gara ditzan, ukitutako barrutietako jarduna eten dezan eta pozoiauren aurkako kudeaketa-plan bat taxutu dezan.

IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita fauna babestua pozoitzeagatiko kalteak gainditzeko beharrezkoak diren neurriak zehaztu eta gara ditzan, ukitutako barrutietako jarduna eten dezan eta pozoiauren aurkako kudeaketa-plan bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin:

Iragan 2012ko uztailean jakin zen hainbat hegazti hil zirela pozoituta "Monte Alto", "Montes de Cierzo" eta Cintruenigoko ehiza-barrutietan. Gaur arte 139 hegazti aurkitu dira hilik. Horietako asko hegazti harrapari babestuak ziren: miru gorriak eta beltzak, sai zuriak, zingira-mirotzak eta sai arreak. Gogoan dugun pozoitze suntsitzaileenetako bat izan da; Estatuan gertatu den larriena, ezagutzen direnetatik.

Pozioa jartzearen delitu hori, faunaren aurkako, egintza oso larria da, bai hildako hegaztien kopuruarengatik –800era irits daiteke–, bai ukitutako azaleraren tamaina handiarengatik, bai inputatutako pertsonak barruti horien kudeatzaile izateagatik.

Egintza hau ez da egintza isolatu bat; izan ere, ingurune horretan bertan hegazti-pozoitze gehiago gertatu dira denboran zehar, zenbait erakunde politikok aztertuak eta talde ekologistek salatu izan dituztenak.

Hegazti-pozoitze masibo honen kasuan, abian da prozedura judizial bat, bai eta oso berandu heldu den prozedura administratibo bat ere, ukitutako barrutietako arduradunak zehatzen dituena, nahiz eta zalantza handitxoak dauden zehapen horiek beteko ote diren.

Izan ere, ehizatzen jarraitu da barruti horietan, eta ehizatzeari eusteko eta horrenbestez Nafarroako Gobernuo Ingurumen eta Ur Zuzendaritza Nagusiak ezarritako zehapenari trufa egiten jarraitzeko asmo garbia dago.

Kontuan hartu beharra dago ez dela neurririk ezarri egindako kaltea gainditzeko, eta Nafarroa autonomia erkidegoetan azken tokietan dagoela pozoiauren aurkako araudiei dagokienez.

Bestalde, aldiro gertatzen dira pozoitze bidezko erasoak ingurumenaren aurka –esaterako, ibaietara eginiko isurketak–; hartara, egungo araudia berrikusi beharra dago, horiek prebenitzeko eta, behin gertatuta, kudeatzeko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du berehala zehaztu eta gara di-

tzan beharrezkoak diren neurriak, ukitutako barrutietako naturguneetako fauna babestua bere onera ekartzeko eta pozoiak hondatutako ordena biologikoa leheneratzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du ehiza-jarduera bertan behera utz dadin inplikaturako barrutietan, salbu eta basurdea eta untxia bezalako ehiza-espezieek nekazaritza-laboreetan eragindako kalteak kontrolatzeko lanak, harik eta pozoiak zelaian jarri izanak eragindako arriskua prebenitzeko baldintzak eduki arte.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du beharrezkoak diren prozedurak gara ditzan, kasuko udalek barrutien zaintza kentze aldera pozoitzearekin ustez zerikusia duten pertsoneri edo kolektiboari.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du lau hilabeteko epean taxutu dezan pozoiauren aurkako kudeaketa plan bat, zaintza areagotzeko eta hobetzeko berariazko neurriak jasoko dituena.

Iruñean, 2014ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen du fundazioen kentzeak eraginik ez izatea auditoriak egiteko premian eta betebeharrean, eta Nafarroako Gobernuak Kontuen Ganberaren esku jartzea dagoen informazio guztia.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI, NAFARROAKO PARLAMENTUKO PARLAMENTU-TALDE POPULARRA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai, Nafarroako Parlamentuko parlamentu-talde popularra eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen baitu fundazioen kentzeak eraginik ez izatea auditoriak egiteko premian eta betebeharrean, eta Nafarroako Gobernuak Kontuen Ganberaren esku jartzea dagoen informazio guztia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Gobernuak Itoitz-Nafarroako Ubi-dea Fundazioa eta Esa Fundazioa kentzea erabaki duenez –Parlamentu honen eskariari jarraikiz, Kontuen Ganberak bi horien auditoria egiteke dauka, eta egutegian jasoak ditu–, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkezten dute:

Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen du fundazioen kentzeak eraginik ez izatea auditoriak egiteko premian eta betebeharrean, Parlamentu honek adierazi bezala. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuari exijitzen dio Kontuen Ganberaren esku jar dezan eskatutako eta egiteke dauden auditoriak egin ahal izateko dagoen informazio guztia.

Iruñean, 2014ko otsailaren 13an

Foru parlamentariak: Maite Esporrín Las Heras, Koldo Amezketa Díaz, Patxi Zabaleta Zabaleta, Eloy Villanueva Cruz eta Txema Mauleón Echeverría

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da abian jar dezan informazio automatikoko sistema bat, itxarote-zerrendan edo hitzorduaren zain dauden herritarrek beren egoera zerrenda horretan kontsultatzea ahalbidetuko duena, eta halaber, premiatzen da Nafarroako Parlamentuari hilabetero igor diezaion aipatu zerrenden bilakaerari buruzko dokumentazio xehakaturia.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita abian jar dezan informazio automatikoko sistema bat, itxarote-zerrendan edo hitzorduaren zain dauden herritarrek beren egoera zerrenda horretan kontsultatzea ahalbidetuko duena, eta halaber, premiatzen baita Nafarroako Parlamentuari hilabetero igor diezaion aipatu zerrenden bilakaerari buruzko dokumentazio xehakaturia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko elehun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Itxarote-zerrendak dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren auzirik kritikoenetako bat. Zerrendek ondo ala gaizki funtzionatzen duten eta, batez ere, horien kudeaketari buruz herritarrek zer irudipen duten, halakoxea izanen da neurri handi batean herritarrek osasun sistema publikoari buruz duten iritzia.

Argi dago Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren kudeatzaileek zerrenda horien egoeraren gaineko ezagutza sakona dutela eta modu jakin batean kudeatzen dituztela datu horiek, sarri askotan ez datozenak bat herritarren per-

tzepzioarekin, halako moldez non zenbaitetan areago egiten baitira Osasun sistema publikoaren osagai hain kritiko horren egiazko egoeraren gaineko zalantzak.

Sozialisten taldean uste dugu funtsezkoa dela herritarrek jakitea zer egoeratan dauden, itxarote-zerrendeiei buruz ari garenean; jakitea zenbat herritar dauden beren egoera berean; jakitea zerrenda horietako zein postutan dauden, bai eta beste edozein datu interesgarri ere. Alegia, gure ustez garrantzitsua da herritarrak argazki ahal den zehatzena izatea itxarote-zerrenden egoerari buruz, denbora errealean, informazioa hirugarrenek emana izan gabe.

XXI. mendean bete-betean gaudela, teknologia berriak aukera aparta dira gardentasunari dagokionez aurrerabidea egiteko herritarrek administrazioarengandik jasotzen duten informazioarekin zerikusia duen orotan; hartara, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Legeak berak ezartzen duenaren testuinguruan, funtsezkoa da, gure ustez, administrazioak tresna bat edukitzea osasunaren esparruan –eta, zehazki, itxarote-zerrenden kudeaketan–, herritarrek denbora errealean jakin ahal izan dezaten zertan den beren afera.

Eta beste horrenbeste Parlamentuari dagokionez. Parlamentuak eta foru parlamentarietako tresnak behar dituzte, kasuko gobernuaren jarduna kontrolatzeko eta sustatzeko eginkizuna erraztuko dutenak. Eta, horregatik, herritarrekiko komunikazio-kanal zuzen bat sortzea bezain garrantzitsua da erakunde publiko nagusia denarekiko kanal hori bera sortzea.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Legea osasuna bezain esparru sentibera batean garatu ahal izateko, herritarrei osasun-zerbitzua ahalik eta modurik onenean ematea bermatze aldera, PSN-PSOEK ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar dezan informazio

automatikoko sistema bat, ahalbidetuko duena itxarote-zerrendan edo hitzorduaren zain dagoen edozein herritarrek bere kokalekua zerrenda horretan kontsultatzea, zehaztuta zerrendako zein postu zehatzetan dagoen, zerrenda zehatz hori osatzen duten gaixoen kopurua eta bakoitzaren itxarote-denbora, kasuko legedian ezarritako datu-erreserbak errespetatuta betiere.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Legebiltzarrerara hilero igor

dezan osasun-laguntzako zentro bakoitzeko kontsulten itxarote-denborei buruzko dokumentazio xehaketa, bai eta, espezialitatez espezialitate, proba diagnostikoei eta ebakuntzei buruzkoa eta itxarote-zerrenda horien hilez hileko bilakaera denbora errealean azaltzeko eta ezagutzeko eman behar dela uste duen informazio osagarri guztia ere.

Iruñean, 2014ko otsailaren 13an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan Belaten barna Iruñetik Frantziara doan N-121-A errepideko tarte osoa bikoizteko aukera.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan Belaten barna Iruñetik Frantziara doan N-121-A errepideko tarte osoa bikoizteko aukera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan Belaten barna Iruñetik Frantziara doan N-121-A errepideko tarte osoa bikoizteko aukera.

Belaten barna Iruñetik Frantziara doan N-121-A errepidea da Foru Komunitatearen komunikazio-

bide nagusietako bat; hartara, Nafarroako Gobernuak edukiera handiko ardatz gisa hartzen du errepide hori, errepideen arloko bere jarduketak sailkatu eta planifikatzeko orduan.

Edukiera handiko ardatzen artean, N-121-A errepidea da, hain zuzen ere, bikoiztu gabe dagoen errepide bakarra. Egoera hori gainontzeko errepide bidezko komunikazioei kontrajartzen zaie; hori dira, esaterako, Iruñetik Jakara doan A-21 errepidea (Pirinioetako autobia); A-10 errepidea (Sakanako autobia); Donostiara doan A-15 errepidea (Iparraldeko autobia); Logroñora doan A-12a (Bideko autobia), eta Zaragozara doan AP-15a (Nafarroako autobidea).

Iragan udaberrian, Sustapeneko kontseilariak Parlamentuan adierazi zuen Belateko tunelen bikoizketari buruzko azterlan bat egiteko asmoa zutela, tunelak Europan indarrean dagoen araudira egokitzeko.

Sustapeneko kontseilariak asmo hori berretsi zuen Baztan-Bidasoako alkateen ordezkari batekin otsailaren 6an Iruñean izandako bileran.

N-121-A errepideko zirkulazio-intentsitatea hona da, 2012ko erabilera-datuen arabera: 10.500 ibilgailu egunean bere bi muturretan, eta 7.000, erdialdean. Nabarmena da ibilgailu pisuen presentzia, zeina handiena baita, zirkulazioaren % 31 egiterainokoa izaki, Nafarroako edukiera handiko ardatzetan, Iruñeko saihesbidea barne, non % 6 eta 19 bitartekoa baita.

N-121 errepidearen erabilera Pirinioetako autobiarena baino handiagoa izan zen 2012an (2.700

eta 13.500 ibilgailu bitarte), bai eta Bideko autobia-ko Lizarra-Viana tarteara baino handiagoa ere (5.700 eta 8.000 ibilgailu bitarte).

Azken urteotan N-121 errepidean izandako trafik-istripuen kopurua igo izana, eskualdeko alka-teek eta gidariak errepidean hobekuntzak egiteko eskariarekin batera, azterlan horren premia indar-tzera dator.

Gauzak horrela, beharrezkoa da azterlan horri Iruña-Frantzia ardatz osoaren ikuspegi orokorretik heldzea, ezen ez Belateko tunelen tarte soilarene-tik.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. N-121-A errepideko Iruña-Frantzia tarte osoa sartzera Belateko tunelen bikoizketari buruz 2014an eginarazi asmo duen azterlan informatibo-an.

Azterlan horrek aukera ezberdinak aztertu beharko ditu, bai eta, besteak beste, obraren bide-

ragarritasuna, gizartearen, ekonomiaren, inguru-menaren eta lurraldearen ikuspuntutik.

2. Bere konpromisoa erakustera, Belaten barna doan Iruñetik Frantziarako errepidean galtzada bikoitza paratzeko, bai bikoizketa eginez, bai N-121-A errepidean autobia bat eginez, egindako azterlanen arabera.

3. Udal ordezkariak, entitate profesionalek edo bestek proiektu horri egiten ahal dizkioten proposamenak aintzat hartzea.

4. Gipuzkoako Aldundiarekin harremanetan jar-tzera, N-121-A errepide osoaren bikoizketa lor-tzeko.

5. Azterlan horren ondorioak sartzera errepide-en planaren berrikuspenean edo etorkizunean egi-ten diren planetan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arbuiazen baitu Espainiako Gobernuaren immigrazio-politika.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari adierazten dio bai mugetan bai atzerritarren barneratzeko zentroetan heriotzak eta egoera gizagabeak eragiten dituen immigrazio-politika arbuiazen duela; bereziki, “bero-beroan egindako itzulketak” izeneko prozesua.

2. Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten ditu etorkinek bai mugetan bai atzerritarren

barneratzeko zentroetan pairatzen dituzten herio-tzak eta egoera gizagabeak.

3. Nafarroako Parlamentuak ikerketa indepen-dente bat eskatzen du, “El Tarajal” hondartzan 2014ko otsailaren 6ko goizaldean Guardia Zibilak izandako jokabidearen inguruabarrak argituko dituenak.”

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak FMko irradi-lizentziak esleitzeko lehiaketaren gaineko epaia betetzeko egin dituen urratsei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuak FMko irradi-lizentziak esleitzeko lehiaketaren gaineko epaia betetzeko egin dituen urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako kontseilari Sánchez de Muniáin jaunak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako Batzordean ahoz erantzun dezan:

Departamentuak zer urrats egin ditu FMko irradi-lizentziak esleitzeko lehiaketaren gaineko epaia betetzeko?

Iruñean, 2014ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, oinarrizko osasun-laguntzan gaixoentzako zaintza-eskaintzak duen jarraitutasunari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, oinarrizko osasun-laguntzan gaixoentzako zaintza-eskaintzak duen jarraitutasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Departamentuaren ustez, zer da oinarrizko osasun-laguntzako gaixoentzako zaintza-eskaintzaren jarraitutasuna?

2. Une honetan, nola jorratzen da jarraitutasun hori?

Gaixoei zaintza eskaintzen jarraitu nahi bada arreta-kupoaren arabera, 20:00ak arte egonen al dira zentro guztietan kupoak?

Iruñean, 2014ko otsailaren 7an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, 2013an zehar “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” lortu duten proiektuei merkataritza-enpresek, finantza-entitateek eta pertsona partikularrek egindako dohaintzei buruzkoa.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkeztutako galdera, 2013an zehar “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” lortu duten proiektuei merkataritza-enpresek, finantza-entitateek eta pertsona partikularrek egindako dohaintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Xabi Lasa Gorraiz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Iragan urtearen amaiera aldean hasi zen Nafarroan “konpromiso sozialeko proiektuaren zigiluaren” ezarpena, Parlamentuak lege baten bidez onetsia eta zeinaren arabera aukera irekitzen baita merkataritza- edo finantza-entitateek edo pertsona partikularrek gizarte-proiektuak finantzatzeko, trukean “sari” fiskal jakin batzuk lortuta. Gizarte Politiketako Departamentuak zigiluaren bidez gaitutakoak diren irabazi asmorik gabeko erakundeek sustatuak behar dute izan proiektuek.

Gizarte Politiketako kontseilariak orain dela gutxi Parlamentuko batzordean egindako agerraldian informatu zuen 84 proiektu lortu dutela “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua”. Ez zuen informaziorik eman, ordea, dohaintzen, guztizko zenbatekoaren, entitate kopuruaren, emaile partikularren eta gisakoen gaineko galderak egin zitzaizkionean. Hori guztia Ogasun Departamentuaren ardura dela esan zuen.

Hartara, honako galdera hauek aurkezten dizkiot Ogasuneko kontseilariari:

1. 2013an zehar “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” lortu duten proiektuei merkataritza-enpresek, finantza-entitateak eta pertsona partikularrek egindako dohaintzek zenbat egiten dute?

2. Zenbat dohaintza egin dira?

3. Izenik eman gabe eta emaileak identifikatu gabe, zein da dohaintza horiek egin dituzten entitateen tipologia (merkataritza-enpresak, finantza-entitateak, partikular gisa jardun duten pertsona fisikoak) eta talde bakoitzeko kopurua?

4. Zenbat diru eman du lehen adierazitako entitate-mota horietako bakoitzak?

5. Ogasun Departamentuak zenbat diru gutxiago lortuko du, “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” duten proiektuetarako dohaintzen emaile horiei aplikatutako salbuespen fiskalen ondorioz?

Iruñean, 2014ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Xabi Lasa Gorraiz

Galdera, jakiteko Elizbarrutiko artxiboa dela-eta inolako dirulaguntzarik edo hitzarmenik egon ote den edo dagoen Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Artzapezpikutzaren artean.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Elizbarrutiko artxiboa dela-eta inolako dirulaguntzarik edo hitzarmenik egon ote den edo dagoen Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Artzapezpikutzaren artean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García,

Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuak, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuari, idatziz erantzun diezazkion:

- Elizbarrutiko artxiboa dela-eta inolako dirulaguntzarik edo hitzarmenik egon al da edo gaur egun al dago Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Artzapezpikutzaren artean?

- Baiezkoan, zer alderdi jasotzen ditu, eta zer alderdiri eragiten die (esate baterako, artxiboaren mantentze-lanak, erabilbidea, publikoarentzat irekitzeko konpromisoa eta abar)? Zer zenbateko du? Artzapezpikutzak zer betebehartzen du jasotako dirulaguntzaren truke?

- Arlo honekin lotuta Artzapezpikutzarekin egon litezkeen hitzarmenen testua igortzeko ere eskatzen dut.

Iruñean, 2014ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Galdera, euskal telebista publikoa ikusi ahal izatea dela-eta Nafarroak dituen interesei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, euskal telebista publikoa ikusi ahal izatea dela-eta Nafarroak dituen interesei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroan ETB hartzeari buruz parlamentari honek egindako galderari erantzunez –8-13/PES-00218 espediente zenbakia–, bigarren lehendakariorde eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak honako hau zioen:

“Nafarroako Gobernuaren eta Euskal Autonomia Erkidegokoaren arteko lantaldeak 2014ko urtarrilaren 17an egin zuen bere lehendabiziko bilera, euskal telebista publikoa Foru Komunitatean ikusteko konponbide bat lortu ahal izateko bide legal, tekniko eta politikoak aztertzeke xedez, Nafarroaren interesen defentsa jasoko dutenak (...)”

Horri dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

• Nafarroako Gobernuaren ustez, zeintzuk dira interes horiek?

Iruñean, 2014ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako osasun-garraioari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako osasun-garraioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera

hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari naizen honek informazioa eskatzen nuen, jakite aldera ea Nafarroako Gobernuak kontraturik sinatu duen osasun-garraioaren enpresaren batekin, eta Osasuneko kontseilari Marta Vera andreak erantzun zidan esanez azken hiru hilabeteotan ez dela inolako kontraturik sinatu. Erantzun hori ikusita, ondoko galderak aurkezten ditut, Nafarroako Gobernuaren organo eskudunak erantzun ditzan:

- Zer enpresa ari zaie zerbitzu ematen Nafarroako Gobernuari edo haren menpeko organoei, osasun-garraioaren zerbitzurik eza betetzeko?

- Zer kontratu-mota du enpresa horrek?

- Enpresa horrekiko kontratuari buruzko informazio guztia igor dakidala eskatzen dut.

Iruñean, 2014ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, “Equilicua” programari buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, “Equilicua” programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarren

Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak eta orduan Nafarroako Kutxa zenak elkarrekin mugitu izan zuten “Equilicua” hezkuntza programa. Berori Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan garatua izan da. Esaterako Lanbide heziketan, 2012. urtean, “Jornadas ICE” direlakoak antolatu ziren. Ekintzailetasuna sustatzeko jardunaldiak (Civicanen egin zirenak).

Universidad de Navarrako ikasleak eta irakasleak izan ziren hizlariak, eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzendurik egon ziren.

Iaz, 2013. urtean, gauza bera antolatu zen, besteak beste. Jornadas ICE, Civicanen berriz ere. Derrigorrezko jarduna izan zen, gainera, ikasleendako.

Galdera

Zein izan da “Equilicua programa” honetan Nafarroako Gobernuak egindako lana 2012 eta 2013 urteetan?

Zein izan da programa honen aurrekontua, eta zenbat diru ezarri du Nafarroako Gobernuak?

Aurrekontua atalez atal agertzea eskatzen dugu.

Hein berean, ICE Jardunaldietan zein izan da Nafarroako Gobernuak egindako lana 2012 eta 2013 urteetan?

Zein izan da jardunaldi hauen aurrekontua, eta zenbatekoa izan da aurrekontu osotik Nafarroako Gobernuak jarritakoa?

Aurrekontua atalez atal agertzea eskatzen dugu.

Iruñean, 2014ko otsailaren 13an

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Nafarroako Gobernuak daukan dokumentaziori buruzkoa, zeinari jarraikiz Estatuko administrazioak eragozten baitu foru parlamentarien esku jarri ahal izatea Guardia Zibilak D ereduari buruz egindako txostena.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko otsailaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak daukan dokumentaziori buruzkoa, zeinari jarraikiz Estatuko administrazioak eragozten baitu foru parlamentarien esku jarri ahal izatea Guardia Zibilak D ereduari buruz egindako txostena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamentuan xedatuaren babesean, honako hau eskatzen du:

2014ko urtarrilaren 8an, parlamentari honek 8-14/PES-00002 espediente zenbakiko galdera hau egin zion Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zezan:

“Nafarroako Gobernuak zer dokumentazio dauka, zeinari jarraikiz lehen aipatu txosten hori

eman zion Estatuko administrazioak eragozten baitu foru parlamentarien esku jarri ahal izatea? Halakorik badago, dokumentazio hori igortzea eskatzen dut?”

Nafarroako Gobernuak gaur, otsailak 11, eman dit erantzuna. Hauxe diost bigarren lehendakariorde eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari José Luis Sánchez de Muniáin jaunak:

“Barne Ministerioak espresuki adierazi zuen txosten hori erreserbatua dela, bai eta egungo legediak dokumentazio sailkatuari dagokionez informazioa zabaltzearen gainean ezartzen dituen mugez ohartarazi ere.”

Hortaz, erantzuna ikusita, parlamentari honek uste du ez zaiola erantzunik eman egindako galderari; izan ere, galderan ez zen D ereduari buruzko txostena eskatzen. Eskatzen dena da Estatuko Gobernuak Nafarroako Gobernuari igorritako dokumentazio, gutun edo txostena, zeinean zehazten baita txosten hori erreserbatua dela eta, kasua bada, txostena zabaltzeko mugak daudela.

Beraz, parlamentari honek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, berriro aurkeztu du iragan urtarrilaren 8an 8-14/PES-00002 espediente zenbakiarekin erregistratuta aurkeztutako galdera, ez zaiolako galdetutakoari erantzun.

Iruñean, 2014ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

